

## KOSTUEN EGITURA

Produktu bat produzitu eta saltzerako garaian, enpresek kostu ugari ordaindu behar dituzte. Hauek kontrolpean izatea ezinbestekoa da enpresaren errentagarritasuna zehaztu eta bermatzeko. Hala nola, merkatuko beste produktuekin alderatuz eta irabaziak daudela ziurtatuz.

Gure enpresaren kostuen egitura egiteko garaian, hainbat puntu bereizi daitezke. Lehenik eta behin, kostu finko eta zuzenei dagokienez, webgunearen hostinga hauetako bat izango da. Izan ere, gure galtzerdi termikoak gure webgunean bakarrik salduko dira. Bestetik, biltegiatze kostua finkoa izango da. Hain zuzen ere, nahiz eta galtzerdien produkzioa fabrika baten esku utzi, bertatik atera eta saltzen diren arte alokatutako biltegi batean gordeko ditugu.

Hirugarrenik, langile bat izango da sare sozialetan bideoak igoaz gure produktuaren promozioaren kargu egongo dena. Beraz, marketing-eko kostua bere soldata finkoa izango da. Hirugarrenik, administrazio kostuak ere finkoak izango dira. Bi langile egongo baitira produkzioaren eta salmenta prozesuaren administrazioa aurrera eramaten. Azkenik, gure produktua beste fabrika batek produzituko duenez eta garraioa ere beste enpresa baten eskutik antolatua izango denez, enpresa hauei kostu finko bat ordainduko diegu hileroko eta hauek izango dira beren langileen soldatak kudeatuko dituztenak. Izan ere, bai fabrika eta bai garraio enpresak beste enpresekin ere kolaboratzen dute.

Bestalde, kostu aldakorrak ere izango ditugu. Materialei dagokienez, galtzerdien materiala eta bai honen beroa sortuko duen bateriaren prezioa aldakorrak izan daitezke; hirugarren ekoizle batzuei erosiak izango baitira eta munduko hainbat egoeratik prezioak igo eta jaisten dira etengabe.

Bukatzeko, proiektu hau aurrera eraman ahal izateko kapitala beharko dugu. Beraz, proiektua hasi ahal izateko gure poltsikotik kostu hau ordaindu beharko dugu. Hau ez da ez finkoa ez aldakorra izango, une bakar batean egin beharko baitugu.

